

Euskal hitzak eta esapideak ezagutarazteko jokoaren egitasmoa

1. Egitasmoaren deskribapena: Altsasu eta inguruko herrietako euskaldunen artean gure hizkuntzaren hitz eta esapideak ezagutarazteko kiniela moduko bat martxan jartzea.

2. Egitasmoaren natura:

a) **Zergatia:** Altsasun 1.502 euskaldun daude. Haietatik gehienak gazte eta haurrak dira. Batzuk txikitatik dakite eta besteak euskaldun-berriak dira. Ondoko herrietatik etorritako euskaldun zaharrak ere badaude. Azken horiek dira euskalkian hitz egiteko gaitasuna duten bakarrenetakoak. (Haien herrikoan, jakina. Ez Altsasukoan). Gehienak, hala ere, euskara batuan aritzen dira.

Hizkuntza aberasteko, gaur egun, Altsasu eta Sakanako euskaldunek, haien ahalegin propioez kanpo, aukera gutxi dituzte. Euskarazko komunikabideak eta gutxi gehiago. Baina horien hedapena eta darabilten lexikoa gazte jendearen artean arrastorik uzten ote duen aztertze dago. Eragin eskasa dela esatera ausartu gaitetzke.

Zuzentasun gramatikaetik kanpo, hizkera kolokiala dago. Hizkera kolokiala egoera informaletan eta maila berekoekin erabiltzen dena da. Behar bada ez da zuzena, baina adierazpen gaitasun handia du eta oso bizia da. Interjekzio, onomatopeia, esapide, esklamazio eta beste hainbat baliabide adierazkorrez betea dago. Ahoskera ere berezko beste elementu bat da. Hizkuntza arauditik urrun, hiztuna aske jokatzeko aukera du estilo kolokialean.

Hain zuzen ere, hori da gazteen artean gehien erabiltzen den hizkera. Baina tamalez, darabilten euskara gramatikalak ez die horretarako aukera handirik ematen eta gazteek erdarara jotzen da bizitasun eta ustezko “jatortasun” baten bila. Gazte jendearen artean gertatzen da askok euskara ikastetxearekin besterik ez dutela identifikatzen. Edo beraien adierazteko moldeetarako estuegia iruditzea. Horrekin hautsi nahian, edo aldatzeko oinarriak eman nahian, bulkatzen dugu kiniela hau.

Hizkera bizitzeko aukerak eta erraztasunak eman beharra dago. Batez ere gazte jendeari. Haien baitira hizkuntzaren etorkizuna. Eta euskararen normalizazioan lan ederra egin dezakete oharkabeen. Izan ere, gazteak haurrentzat ispilu dira eta haien egiten dutena, kasu honetan euskaraz hitz egin, hori errepikatu egingen dute hurrek.

Kiniela bera joko eta postuarekin lotua dagoen hitza da. Hemen proposatzen den kinielak gazteen, eta helduen, hizkuntza ohituretan eragitea du asmoa. Horretarako hizkuntzarekin jolastu eta hizkuntza sortzeko aukera eskaini nahi da. Izan ere, jokalariek hartu egingen du, baina eman, sortu, ere egin beharko du.

Euskararen edo, nahi bada, zenbait hitz eta esapideren erabilera sustatzeko joko bat proposatzen da hemen. Halakorik ez dago inguruan. Jendeari orain arte hartzaile izatea proposatu zaio. Orain parte-hartzaile izatea ere eskatzen zaio. Gainera sariak izanen dira tartean. Horrek euskara ez bada joko bera erakargarri egingen duela pentsatzekoa da.

Kiniela hau Kima Euskara Taldeak eramanen du aurrera. Baina horretan Altsasuko Udalaren eta Sakanako Mankomunitatearen laguntza du.

b) Proiektuaren funtsa: Altsasuko gazte euskaldunei euskara erakargarriagoa egin araztea

c) Helburua: Gazteen artean, batez ere, euskararen erabilera aberasteko zenbait hitz eta esapide ezagutaraztea modu ludiko batez.

d) Zeharkako helburuak: - Erdaldunen hiztegian euskal hitz eta esapideak sartzea.
- Erdaldunen artean euskara ere badela gogoraraztea.
- Gazte hizkera aberastea.
- Gazteen adierazpen gaitasuna hobetzea.
- Altsasuko euskaldunak elkar ezagutzea eta hala identifikatzea.
- Bertako euskalkiaren ezagutza bulkatzea.
- Bertako euskalkiarekiko interesa piztu.
- Hizkuntzaren erabilera eta sormena bulkatu.
- Euskara altsasuarren eta sakandarren artean presentzia izatea.
- Kultur ekitaldien sustapena egin.

e) Proiektuaren helmuga: Euskaldunen artean euskal hitz eta esapideen zabalkundea handituko duen kiniela apirilean martxan jartzea. Eta herriko euskaldunak pixkanaka haien hizkuntza erabiltzera bulkatzea.

f) Onuradunak: - **Zuzenak:** Altsasuko (eta inguruetak) euskal hiztunak.
- **Zeharkakoak:** Altsasu eta inguruetako erdaldunak.

g) Produktuak: Kiniela aurrera eramateko beharrezko baliabide eta jakintza aski duen taldea sortzea, batetik. Epe ertainean sustatutako hitz eta esapideetako batzuk ohiko hizkeran txertatzea, bestetik.

h) Non: Kiniela Altsasuko euskaldunei zuzendua dago bereziki. Baina nahi duen euskaldun orok parte hartu dezake. Batez ere gazteei zuzendua dagoenez, haiek biltzen diren tokietan zabalduko da batez ere. Hilero partida berri bat egingen da. Eta noizean behin kiniela beraren sustapen kanpaina bat egingen du Kima Euskara Taldeak.

3. Metodoak eta teknikak.

Bideak: Hilean behin ikastetxe eta gazteak biltzen diren tokietan kiniela banatuko da eta taldearen web orrira igoko da. Kinielak zenbait atal izanen ditu. Batean Burundako hitzak azalduko dira eta haien batuarekiko pareko hitza eskatuko da. Edo alderantziz. Esamolde batzuk ere agertuko dira eta haren esanahiaren berri eman beharko dute. Gauza bera onomatopeiekin. Horretaz gain, definizio batzuk ere agertuko dira eta haien hitz edo esamolde batean nola esango luketen adierazi beharko dute. Irainendako ere

lekua egonen da. Hamar bat hitz eta esapide izanen ditu kinielak. Lehiaketa kurtsuak dirauen bitartean egingen da.

Kiniela paperezko euskarrian banatuko da. Erantzunak idatzi eta haiek jasotzeko propio jarritako ontzietan sartu beharko dituzte parte hartzaileek. Ontzi horiek ikastetxeetan, AEKn, gazteak biltzen diren lekuetan eta Iortia Kultur Gunean jartzen ditugu. Kima Euskara Taldearen web orriaren bidez ere erantzunak emateko aukera ere eskainiko da. Helbidearen berri kinielan bertan agertuko da.

MP3 tresna bat izanen da hileru sari potoloa. Irabazleen berri ere modu egokian egingen da komunikabideen bidez, baina gazteak ez lotsarazteko moduan. Bestalde, jasotzen dugun hitz eta esapide guztien bilduma ere egingen da pixkanaka.

Hala ere, alde zuzenetik egitasmoa ezagutzera eman behar da. Batez ere interesatuenean artean, gazteak. Guztia aurrera eramateko gazteak ikasten duten ikastetxeen babesa behar da. Kinielak **batixabi** izena izanen du.

- 4. Tresnak:**
- Hitz eta esapideak landuko dituen taldea osatu.
 - Hitz, esapide eta bestelakoen zerrenda eskuratu.
 - Aurrekontuak eskatu. Kinielaren papera, iragarkiak, ontzia...
 - Hitzarmena sinatu udalarekin ontzi uzteko baimena eta ikuskizunetarako sarrerak eman ditzan.
 - Ikastetxeen adostasuna lortu kiniela zabaltzeko.
 - Euskara irakasleen inplikazioa lortu haien ikasleek erabiltzen duten hitz eta esapidez horni gaitzaten.
 - Posta elektronikoko helbidea lortu.
 - Kartel iragarleak jarri, irratirako kuñak egin eta prentsa oharra zabaldu.
 - Ontzia Iortia Kultur Gunean jarri.
 - Kinielako hitz eta esapideak aukeratu eta inprimatu.
 - Kinielako paperak ikastetxeetan, AEKn eta gazteak biltzen diren tokietan banatu.
 - Kinielak jaso.
 - Emaitzak begiratu eta irabazlea iragarri.
- 5. Egutegia:**
- Kiniela banatuko den hilabeteen egutegia prestatu. Jai egun asko dituzten hilabeteetan ez da kinielarik banatuko.
 - Kiniela prestatu.
 - Kiniela inprimatu.
 - Hilabete hasieran kiniela banatu ikastetxe, AEK eta gazteak biltzen diren tokietan.
 - Kiniela banatu denaren berri prentsara zabaldu.
 - Bi aste eta gero kiniela jaso.
 - Emandako erantzunak aztertu eta gehien asmatu duenari saria eman.
 - Saria erosi.
 - Sarituarekin gelditu eta saria eman.

6. Baliabideak:

- Giza baliabideak:
 - Euskara Taldeko kideak
 - Irakasleak.
 - Filologo aholkulariak.

- Baliabide materialak: - Kinielak paperean inprimatuak. Hilero 1000
 - Ordenagailua eta posta elektronikoa.
 - Kinielak sartzeko ontzia.
 - Ontzia uzteko tokia. Altsasuko Udalaren baimena.
 - Kiniela publizitzeko kartelak.
 - Prentsa oharra.
 - Opariak.
 - Kinielak gordetzeko tokia.

- Baliabide ekonomikoak:
 - Kimaren baliabide propioak.
 - Altsasuko Udalaren eta Sakanako Mankomunitatearen diru laguntza.